

# *Egoeraren Azterketa*



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Sortzen den enplegua  
temporala da**

**Prekarietateak gora egiten du**

**Prestazioak murrizten ari dira**

**Prestazioen estaldura minimoa da**

**Europako langabezia  
altuenetakoa dugu**

**Politika industrialak: atzeratu  
ezineko gai estrategikoa**

# Hego Euskal Herriko lan eta ekonomi egoeraren adierazleak (\*)

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>			
BIZTANLERIA OKUPATUA	1.159.600	2016KO I. HIRUHILEKOA	1.128.500
PARTZIALITATE TASA	%19,3	"	%19,3
EMAKUMEAK	%31,3	"	%33,6
GIZONAK	%8,8	"	%6,7
SOLDATAPEKO LANGILERIA	969.800	"	943.400
BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA	%24,6	"	%22,0
EMAKUMEAK	%27,2	"	%24,9
GIZONAK	%22,1	"	%19,2
BIZTANLERIA LANGABEA	175.300	"	219.100
LANGABEZIA TASA	%13,1	"	%16,3
EMAKUMEAK	%13,8	"	%16,1
GIZONAK	%12,5	"	%16,4
GAZTE LANGABEZIA TASA	%31,9	"	%39,4
EMAKUMEAK	%29,1	"	%35,7
GIZONAK	%34,1	"	%43,0
<b>KONTRATUAK</b>			
EGINDAKO KONTRATUAK	491.235	2016KO URTARRILA-MAIATZA	446.865
KONTRATU PARTZIALAK	176.440	"	158.805
BEHIN-BEHINEKO KONTRATUAK	456.001	"	414.787
<b>BPGaren HAZKUNDEA</b>			
BPG EAE	%3,3	2016KO I. HIRUHILEKOA	%2,2
BPG NAFARROA	%3,1	"	%2,4
BPG EUOPAR BATASUNA 28	%1,8	"	%1,5
<b>KPIREN URTEARTEKO ALDAKETA</b>			
KPI ESTATU ESPAINIARRA	-%1,0	2016KO MAIATZA	-%0,2
KPI EUOPAR BATASUNA 28	-%0,1	"	%0,3
Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkie. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.			
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estadistika Institutua, Eurostat, INE, SEPE.			
2016/06/16an eguneraturiko informazioarekin.			



# Aurkibidea

## EGOERAREN AZTERKETA

1. Biztanleria aktiboa eta enplegua . 4
2. Enplegua sektoreka eta prekaritatea: partzialitatea eta behin-behinekotasuna . . . . . 4
3. Langabezia kolektiboaren arabera. . . . . 5
4. Langabeziagatiko prestazioak . . . . . 6
5. Gizarte Segurantzaren afiliazioa . . . . . 6
6. Europako egoerarekiko alderaketa: langabezia eta gazte langabezia . . . . . 7
7. Prezioak eta ekoizpena . . . . . 8

## HILABETEKO PUNTAKO GAIA:

- Industria eta industria politika kinka larrian. . . . . 9

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren Azterketaren ale honetan Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoetan dagoen enpleguaren eta langabeziaren egoera eta azken hila-beteetako joera aztertzen da batik bat. Horrez gain, ekonomiaren joera ikuskatzen da ekoizpenari (BPG bidez neurtuz) eta prezioei (KPI) dagokienez. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak gaur egun burutzen duen politika industrialari buruzko gogoeta barneratzen da, hura hobetzeko eta HEHn dagoen errealitate berriaren beharretara egokitzeko proposamenekin bat.

*\* Txosten hau 2016ko ekainaren 16an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Manu Robles-Arangiz Institutua  
[www.mrafundazioa.eus](http://www.mrafundazioa.eus)  
Twitter: @mrafundazioa

# Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa


## 1. Biztanleria aktiboa eta enplegua

2016ko lehen hiruhilekoan 1.334.900 pertsonak osotzen zuten HEHko lan merkatua deritzona, biztanleria aktibo bezala ezagutzen dena: 306.500 Nafarroakoak eta 1.028.400 EAEkoak zirelarik. Honek enplegua duten pertsonak eta, eduki gabe, aktiboki bila dabiltzanak barneratzen ditu. Aurtengo lehen hiruhilekoan biztanleria aktiboa 2015 amaieran baino 1.800 pertsona altuagoa bazen ere, urtebete lehenago baino 12.700 baxuagoa zen.

Biztanleria aktibo gaztea (16 eta 24 urte bitartekoa) 61.800 pertsonakoa zen, aurreko hiruhilekoan baino 1.000 gutxiago eta urtebete arinago baino 1.700 murriztagoa. Biztanleria aktiboaren %52,9 gizonezkoa zen, gazteen artean %54 zelarik. Erki-dego bietan antzeko egoera ematen zen.

Biztanleria okupatua edo diru trukean enplegua zuena 1.159.600 pertsonakoa zen, aurreko hiruhilekoan baino 300 handiagoa eta urtebete lehenago baino 31.100 handiagoa. Erkidegoka, urtearteko joera positiboa izan zen (4.600 gehiago Nafarroan eta 26.500 EAEn); baina aurreko hiruhilekoarekiko, Nafarroan 1.600 enplegu galdu ziren eta EAEn 1.900en sortu.

**HEHko langabezia tasa eta biztanleriaren lan egoera**



Iturria: INE

Sexuaren arabera, lana zuten gizonak 617.900 ziren 2016ko lehen hiruhilekoan (urtebete lehenago baino 19.700 gehiago: %3,3ko hazkundea, beraz). Enplegua zuten emakumeak, aldiz, 541.700 ziren (12 hilabete lehenago baino 11.500 gehiago: %2,2ko igoera). Aipatzekoa da lana zuten emakumeen kopuruak behera egin zuela 100 pertsonatan azken hiruhilekoan

Nafarroan eman zen egoera latzagatik (2.900 enplegu gutxiago), EAEn sorturiko enpleguak guztiz estali baitzituen (2.800 enplegu gehiago).

## 2. Enplegua sektoreka eta prekaritatea: partzialitatea eta behin-behinekotasuna

HEHan enplegua zuten pertsonen %19,3k lanaldi partziala zuen (%18,9 Nafarroan eta %19,4 EAEn). Partzialitateak gora egin zuen aurreko hiruhilekoarekiko 1,1 ehunekotan, 2015eko azken bederatz hilabeteetan eman zen jaitziera guztiz deuseztatuz.

Azpimarratzekoa da lanaldi partziala zutenen %75 emakumezkoak zirela (169.700; gizonak, berriz, 54.200); eta lan egiten zuen hiru emakumetik batek lanaldi partziala zuela (%31,3eko partzialitate tasa; gizonak, aldiz, %8,8).

Sektoreka, okupatuen %1,7 nekazaritzan aritzen zen, %22,5 industrian, %5,3 eraikuntzan eta %70,5 zerbitzuetan. Kontratatzailearen jabetzaren arabera, langileen %15,4 sektore publikoan zebilen eta %84,6 pribatuan: sektore publikoan zebiltzan emakume langileen %20,3 eta gizonen %11.

**Enplegua sektoreen arabera HEHn**

	1HH2015	1HH2016
<i>Aktibitate sektorea</i>		
Nekazaritza	%0,8	%0,7
Eraikuntza	%4,3	%4,1
Industria	%23,6	%24,9
Zerbitzuak	%71,3	%70,3
<i>Kontratatzailearen jabetza</i>		
Publikoa	%15,7	%15,4
Pribatua	%84,3	%84,6

Iturria: INE


Soldatapeko enpleguari buruz, 2016ko lehen hiruhilekoan 969.800 soldatapeko langile zeuden HEHn: 2015 amaieran baino 5.200 gutxiago baina urtebete lehenago baino 26.400 gehiago. Joera oso antzekoa izan zen bi erkidegoetan.



Soldatapeko gazteak 36.500 ziren, urtebete lehenago baino 300 gehiago eta aurreko hiruhilekoan baino 2.200 gehiago.

Soldatapekoen artean, %24,6ak aldi-baterako kontratua zuen HEHn: Nafarroan %25,4ak eta EAEn %24,4ak. Portzentajea hauek asko hazi ziren aurreko urtetik, ehuneko bi puntu baino gehiagotan igo baitziren azken urtean. Gainera, emakumeek gizonak baino tenporalitate maila altuagoa pairatzen zuten: %27,2 emakumeek eta %22 gizonak.

### Partzialitatea eta tenporalitatea HEHn



Iturria: INE

2016ko lehen bost hilabeteetan 491.235 lan kontratu egin ziren HEHn (139.041 Nafarroan eta 352.194 EAEn), 2015eko epealdi berean baino %10 gehiago. Hala eta guztiz ere, 2016an egindako kontratuetatik 456.001 behin-behinekoak izan ziren, kontratazioan zegoen tenporalitatea %92,8an kokatuz (Nafarroan %94,1 eta EAEn % 92,3), 2015ean emandakoaren maila berean.

Kontratazioan zegoen behin-behinekotasun maila altu honek adierazten zuen sortzen zen ia enplegu guztiz tenporala zela. Eta, horren eraginez, soldatapeko langileen tenporalitatea gorantz zioan: 2015eko lehen hiruhilekoan %22 zen eta 2016koan %24,6, ikusi dugun bezala.

### 3. Langabezia kolektiboaren arabera

Saiatu arren lanik lortzen ez zuten pertsonen kopurua 175.300ekoa zen HEHn 2016ko lehen hiruhilekoan: 19.700 gazteak ziren eta 21.100k 55 urte baino gehiago zituen. Iazko datuekin alderatu ezker, langabezia 43.800 pertsonatan jaitsi zen,


nahiz eta aurreko hiruhilekoarekiko 1.400etan hazi; gazte langabezia 5.300etan murriztu zen azken urtean (aurreko hiruhilekoarekiko 6.800etan); aldiz, 55 urtetik gorakoena hazi egin zen 3.400etan (horietatik 900 azken hiruhilekoan).

Honek guztiak eragin zuen Hego Euskal Herriko langabezia %13,1ean kokatzea 2016ko lehen hiruhilekoan: %14,3 Nafarroan eta %12,8 EAEn. Datu hau urtebete lehenago zegoena baino askoz ere baxuagoa zen (orduan langabezia %16,3 baitzen) baina 2015 amaierakoaren oso antzekoa (%13). Gizonen artean, langabezia %12,5 zen (Nafarroan %12); emakumeen artean %13,8 (Nafarroan %16,9).

Gainera, langabeen %61,2ak urtebete baino gehiago zeraman lan egin nahian lortu gabe; Nafarroan 3 langabetik 2k urtebete baino gehiago zeraman lanik gabe (emakume nafarrek are egoera latzagoa pairatzen zuten: langabeen %68 epe luzeko langabea baitzen).

Azken urtean eman zen joerak ez zuen epe luzeko langabezia murriztu Hego Euskal Herrian, 2016ko lehen hiruhileko datua 2015eko lehen hiruhilekoaren berbera baitzen. Nafarroan egoerak okerrera egin zuen (langabeen %53 izatetik epe luzekoak, %66,1era pasatu baitzen); honen eragile zuzena zen emakumeek gizonak baino denbora gehiago behar zutela enplegu bat eskuratzeko: 2015eko martxoan epe luzeko langabezia emakumeen artean %49,6 zen (12 hilabete ondoren %68); gizonen artean %56,8 zen bitartean (eta aurtengoan %63,3). EAEn epe luzeko langabeziak behera egin zuen gizon eta emakumeen artean.

### Gazte langabezia eta epe luzekoa



Iturria: INE

Bestalde, gazteen langabezia %31,9koa zen HEHn: %34,1 Nafarroan eta %31 EAEn. Honek eragin handiagoa zuen gizonengan (%34,1eko gazte langabezia) emakumeengan baino (%29,1). Azken urteko eboluzioa positiboa izan zen, 16 eta 24 urte arteko pertsonen langabezia murriztu egin baitzen: 2015eko lehen hiruhilekoan %39,4 izan zen (%43 gizonezkoen artean eta %35,7 emakumezkoen artean).


SEPERen bulegoek zenbaturiko langabezia 189.188 pertsonatakoa zen 2016ko maiatzean; aurreko urteko hilabete berean baino 16.995 baxuagoa. Erkidegoaren arabera, Nafarroan langabezia 41.175ekoa zen eta EAEn 148.013koa. Joera antzekoa izan zen bi lurraldeetan, azken urtean zehar Nafarroan langabezia 3.501 pertsonatan jaitsi baitzen eta EAEn 13.494tan.

Gazte langabezia 13.332 pertsonak pairatzen zuten HEHan: 4.267 Nafarrek eta 9.065 EAEkoek. 2015eko maiatzean baino 1.551 gutxiagok (240 Nafarroakoak eta 1.311 EAEkoak).

## 4. Langabeziगतिको prestazioak

Langabeziगतिको prestazioak, 2016ko apirilean, soilik HEHko langabeen %38,4ak jasotzen zituen (195.440 langabe zeuden orduan). Datua okerragoa izan zen EAEn (%36,8) Nafarroan baino (%44).

### Prestazioak jasotzen dituzten pertsonen ehunekoa eta hartzekodun bakoitzak apirilean jaso duen batez besteko zenbatekoa. HEH)



Iturria: SEPE

Horrela, EAEn hiru langabetik batek bakarrik jasotzen zituen langabeziगतिको prestazioak; Nafarroan erlazio hori langabe bitik batera iristen ez zelarik. Urtebete lehenago, langabeziगतिको prestazioak langabeen %47,1ak jasotzen zituen Nafarroan eta %39,6ak EAEn. Hego Euskal Herri

mailan, langabeziगतिको prestazioen estaldura langabeen %41,3koa zen 2015eko apirilean; eta soilik %38,4koa 2016ko apirilean.

Beraz, 75.056 pertsona izan ziren langabeziगतिको prestazioen hartzekodun aurtengo apirilean; horretarako 77.703.000 euro bideratu zirelarik, hartzekodun bakoitzeko 1.035,27 euro batez bestean (urtebete lehenago 1.050,31 euro izan ziren). Zehazki, 2015eko apirilean ia 15 milioi euro gehiago bideratu ziren prestazio hauetara.

### Langabeziगतिकo prestazioen batez besteko kopurua apirilean

	Nafarroa	EAE	HEH
<b>2015</b>			
Langabeko gastua	473,43	422,43	433,49
Kotizaziopeko prestazioa	1.529,40	1.540,60	1.538,03
Sorospeneko prestazioa	488,21	492,12	491,07
<b>2016</b>			
Langabeko gastua	440,64	385,48	397,58
Kotizaziopeko prestazioa	1.499,63	1.495,13	1.496,19
Sorospeneko prestazioa	494,56	503,33	500,96

Iturria: SEPE

Hego Euskal Herriko langabeziगतिकo batez besteko kotizaziopeko prestazioaren kopurua 2016ko apirilean 1.496,19 eurotako izan zen (zegozkion kotizazioak barne) eta sorospeneko prestazioarena 500,96 eurotako. Langabeziगतिकo pertsona bakoitzeko batez besteko gastua 397,58 eurotako izan zelarik (urtebete lehenago 433,49 euro).

Honek guztiak agerian uzten du prestazioen gainbehera, alde batetik, eta prestazioen estaldura mailaren gutxitzea, bestetik. Gastu publikoaren murrizketek eragin dute egoera hau, langabeziगतिकo prestazioetan ere murrizketak eman baitira, Hego Euskal Herriko enpleguaren eta langabeziaren hobekuntzarik ez baita eman.

## 5. Gizarte Segurantzzen afiliazioa

2016ko maiatzean, batez bestean, 1.176.767 pertsona zeuden Gizarte Segurantzzen afiliaturik Hego Euskal Herrian: 264.373 Nafarroan eta



912.394 EAEn. Urtebete lehenago baino 23.822 lagun gehiago: 6.517 gehiago Nafarroan eta 17.305 gehiago EAEn.

### Gizarte Segurantzaren batez besteko afiliazioa 2015 eta 2016ko maiatza artean

		Nafarroa	EAE
2015	Maiatza	257.856	895.089
	Ekaina	257.797	895.614
	Uztaila	257.733	895.228
	Abuztua	257.568	885.409
	Iraila	258.798	891.525
	Urria	260.601	900.622
	Azaroa	260.281	904.198
2016	Abendua	259.536	907.964
	Urtarrila	255.841	897.956
	Otsaila	257.103	900.344
	Martxo	257.963	903.702
	Apirila	260.675	906.466
	Maiatza	264.373	912.394

Iturria: Gizarte Segurantzaren

Izatez, 2016ko maiatzeko batez besteko afiliazioa azken 13 hilabeteetako altuena izan zen bai Nafarroan eta baita EAEn ere. Zikloak ikuskatu daitezke afiliazioaren datuetan: hazkundea eman izan da iraila eta abendua bitartean eta urtarrila eta maiatza artean, eskulanaren erabilera altuagoa eman izan baita gabonetan eta udan; data horien ondoren, enpleguak behera egin izan du hurrengo zikloan sartzeko.


## 6. Europako egoerarekiko alderaketa: langabezia eta gazte langabezia

Hego Euskal Herriko langabezia maila europakoarekin konparatzean, 28 estatuen Europar Batasuneko batez besteko langabezia tasa %8,8koa zen 2016ko martxoan (moneta batasuna zuten estatuetan %10,2); horren parean, 2016ko lehen hiruhilekoan, HEHan langabezia tasa %13,1ekoa zen (Nafarroako %14,3 eta EAeko %12,8az osotua, gogoratu dezagun).

Langabezia maila baxuena zuten estatua 2016ko martxoan Islandia zen, %3,1eko tasarekin; hurbil kokatuz Txekia (%4,1) eta Alemania (%4,2). Aitzitik, maila okerrera zuena Grezia zen (datu

berrienaren arabera, otsailekoa hain zuzen) %24,2ko langabezia tasarekin; makalen artean bigarren Estatu espainiarra zegoen, %20,3arekin. Bi estatu hauek ziren EB-28n %20tik gorako langabezia tasa zuten estatu bakarrak. Alderaketa gisa, Europar Batasunekoak ez ziren estatu batzuk barneratu dira analisisian, Ameriketako Estatu Batuak esaterako, martxoan zuten langabezia tasa %5ekoa zelarik.

### Langabezia tasa (%) martxoan (izartxodun estatuak otsailean)




Iturria Eurostat, INE

Gazteen langabeziari dagokionez, estatuek zuten egoera langabezia tasa orokorraren oso antzekoa zen baina maila okerragoekin. Horrela, Europar Batasuneko gazteen langabezia tasa %19koa zen (eurogunean %21,4), Alemaniakoa %7 (datu baxuena) eta Islandiakoa %7,2; beste muturrean Greziako %51,4 (datu altuena) eta Estatu espainiarreko %45,6 gazte langabezia tasak zeuden.

HEHko gazte langabezia 2016ko lehen hiruhilekoan %31,9 izan zen (EAEn %31 eta

Nafarroan %34,1). Hego Euskal Herriko gazte langabezia tasa Alemaniako baino lau aldiz handiagoa zen, Austriakoaren hirukoitza eta estatu Baltikoen edo Hungariaren bikoitza.

## Gazteen langabezia martxoan (\* otsaila / \*\* abendua)



Iturria: Eurostat, INE

Langabezia eta gazte langabezia tasa altuenak zituzten europako estatuak PIGS bezala ezaguturikoak ziren (Portugal, Italia, Grezia eta Estatu espainiarra), Kroazia eta Txiprerekin batera. Estatu horiek zituzten langabezia tasak %11,5 eta %24,2 artean kokatzen ziren, eta gazte langabeziako datuak %27,7 eta %51,4 artean. Hego Euskal Herrian genuen egoera tarte horietan barneratzen zen, HEHak Estatu espainiarrarekiko duen dependentzia politikoaren ondorioetako bat delarik.


## 7. Prezioak eta ekoizpena

Ekonomiaren joera ona izatetik urrun dago: prezioak ia ez dira aldatu eta, BPGaren hazkundera

egon arren, populazioaren gehiengoaren egoera ez da hobetu. Zehazki, 2015eko urtarriletik 2016ko maiatzera bitartean KPIren hilabeteko batez besteko aldakuntza EAE eta Nafarroan hutsa izan da: EAEen prezioek %0,1 egin dute gora eta Nafarroan %0,1 behera. Urteartekoa ikuskatuz (hilabete bat aurreko urteko hilabete berberaren alderatzean), Nafarroako KPI maitatzean -%0,8 eta EAEkoa -%0,7 izan dira.

Estatu espainiarrean prezioen bilakaera negatiboa izaten ari da, Hego Euskal Herriko datuetatik beherago kokatuz. 2015 eta 2016ko maiatzen artean Estatu espainiarreko prezioek %1 egin dute behera, eta 2015eko urtarriletik gaur arte KPI ez da negatiboa izan soilik hiru hilabetetan: 2015eko ekaina eta uztailan (prezioek %0,1 egin zutenean gora) eta abenduan (bilakaera hutsa izan zenean).

## KPIren urtearteko bilakaera (%) Espainian 2015eko urtarrila eta 2016ko maiatza artean



Iturria: INE

Ekoizpen ekonomikoaren joerari dagokionez (BPG bidez neurtuta), positiboa izaten ari da azken hilabeteetako bilakaera: 2016ko lehen hiruhileko datuen arabera, EAEko BPG %3,3 hazi da aurreko urteko epealdi berberarekin alderatzean, eta Nafarroakoa %3,1 hazi da. Urtebete lehenago hazkundera eman zen ere, %2,2 eta %2,4 hurrenez hurren. Gainera, hazkunde ekonomikoaren azkartze bat nabari da, gero eta hazkunde handiagoak ematen baitira.

Estatu espainiarreko bilakaera antzekoa izaten ari da, lehen hiruhilekoan eman zen urtearteko hazkundera %3,4koa baita (urtebete lehenago %2,7) eta hazkunde tasa altuagoak egonik denborak aurrera egiten duen heinean.

Hala eta guztiz ere, guzti honek ez du gizartearen ongizatea hobetu, ezta eros-ahalmena handitu ere: hazkunde ekonomiko eta prezioen mantentzea ematen baitabil ezberdintasun ekonomikoaren eta pobrezia-igoeraren baitan.





1

## Industria eta industria politika kinka larrian

Euskal industriak bizi duen egoera oso larria da. Azken hilabeteotan enpleguaren suntsiketa eta lan baldintzen prekarizazio kasu ugari eman dira, askotan mozkin handiak dituzten enpresa transnazionalak buruturik, gainera. Horren adibide dira EAeko Arcelor eta Nafarroako Landabenen (TRW) eman diren bezalako kasuak.

Industriak ekonomian, gizartean (Euskal Herriko biztanleria okupatuaren %25ak industrian egiten du lan) eta naturan duen funtsezko garrantzia ezaguturik, ELAn nahitaezko jotzen dugu gure eskura dauden tresna guztiak erabiltzea herri bezala ditugun beharretara egokitzen den industria bat sortu eta garatzeko.

Horretarako lehen urratsa industria-larrialdi egoera honetara ekarri gaituzten alor larri eta garrantzitsuenak identifikatzea da:

1. Politika neoliberalak aplikatzen dizkigute: Eusko Jaurlaritza ongizate estatua deuseztatzen dabil gastu eta zerbitzuen murrizketak eginez, Euskaltel bezalako enpresa publikoak pribatizatuz eta finantzak eta bestelako gai estrategikoak liberalizatuz eta kontrola galduz (Kutxabank); Foru Aldundiek fiskalitate inekitatibo eta injustua ezartzen dute...
2. Energia eredu zaharkitu, espekulazioarekiko dependiente eta jasangaitzak ditugu, aldatetarako aukerak ugariak eta beharrak atzeraezinak badira ere.
3. Lan eta bizi baldintzak lehentasunen artean ez dira kokatzen, dagoen prekariedade eta ezarri dizkiguten lan erreformak eta negoziazio kolektiboaren estatalizazioa ontzat hartuz: pertsonak ekonomiaren erdian kokatu beharrean enpresak jartzen dira.
4. Enplegurako prestakuntza politikak ez dira egokiak: kalitatea eta emaitzak kontuan hartu gabe soilik patronal, UGT eta CCOOen interes ekonomikoak asetzeko diseinatu dira,

konplizitatea lortzeko gobernuek egiten duten politika neoliberalen aplikazioan.

5. Enpresa handi eta transnazionalen aldeko apustua egiten da, globalizazioaren alde okerrera jasanez ahalegin eta laguntza nagusiak beraiei zuzenduz, enplegu gehiena hemengo ETEk sortzen badute ere.
6. Politika eta neurri horiek aplikatzen dizkigute inolako partaidetza eta adostasun gabe, eta are gutxiago benetako analisi eta eztabaiden baitan. Gainera, administrazioarekiko erlazioak burokrasiaz beterik daude eta ez dago koordinaziorik Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta udaletxeen artean, are gutxiago estatuko eta Europako gobernuekin.
7. Ikerketa, garapen eta berrikuntza maila baxua dugu, Europar Batasuneko batez besteko maila baino %5 murriztagoa eta inbertsio handiena egiten duen estatuarena baino %40 gutxiago.
8. Ehun produktibo industrialia eta enplegua deslokalizatzen da, batez ere transnazionalen esku dagoenean, mozkin altuagoak lortzeko asmo hutsarekin.

Hori dela eta, Euskal Herriko industria bermatu, garatu eta eraldatzeko elkarlana eta borroka inoiz baino ezinbestekoagoa zaigu. ELAn lan eta borroka egiten jarraituko dugu, gobernuek dagoen betebeharra denontzat egin dezaten: benetako neurriak eta politikak aplikatu gizartearen ongizaterako.

ELAn beharrezko jotzen ditugun neurri eta politika horiek, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiekin dagokienez, ondorengoak dira:

1. Neoliberalismoa eta murrizketak alde batera uztea, gastu publikoa sustatuz ehun produktiboa handitu eta hobetzeko; zerga politika eraldatzea, gizartearentzako justuagoa eta eraginkorragoa den bat ezarri.

Gainera, enpleguaren eta aktibitate estrategikoen kontrola berreskuratzea, horretarako enpresa pribatuetan partaidetzak izanez (ACB Sestao eta Euskaltelen egin denaren kontrakoa, hain zuzen) eta enpresa publikoak sortuz eta sustatuz, besteak beste gizartearen zerbitzura dagoen finantza sistema publiko eta kalitatezkoa (Kutxabank bera izan daitekeena, egungo joera aldatzen bada).

2. Energia eta kontsumo eredu berde eta jasagarri bat bultzatu eta ezartzea, egungo beharrak eta hurrengo belaunaldien esku-bideak batera uztartuz eta bermatuz. Ekimen honekin bakarrik 106.400 enplegu sortu daitezke gure herrialdean ingurumena babesten den bitartean.
3. Kalitatezko eta duina den enpleguaren alde jotzea, lan harremanen euskal esparrua sortuz eta prekaritatea eta kolektibo diskriminatuek jasaten duten langabezia ekiditeko neurri eta ikuskaritza zorrotzak burutuz: pertsonak eta gizartea helburu nagusi bilakatzeke.
4. Enplegurako prestakuntza politika goitik behera aldatu behar da. Prestakuntza zentroen papera lehenetsiz eta gobernu, sindikatu eta patronalak kanpoan utziz, helburu zein irizpide objektibo eta uni-bertsalak bermatuz.
5. Enpresa txiki eta ertainen aldeko apustu irmoa egitea eta, aldi berean, industriaren eraldaketa sustatzea; horretarako ematen diren diru eta bestelako laguntzak enpleguari eta lan baldintza egokiei lotuz, ez daitezen errepikatu Gasteizko Daewoo bezalako kasuak, enpresak dirua hartu bezain laster ezin dezan itxiera planteatu.

Ekoizpen eta kontsumo ereduaren birplan-teamendua eta birlokalizazioa aztertu eta plazaratzea, hemengo enpresa, enplegu eta produktuak bermatzeko xedez. Kanpoko menpekotasunak ukatzea bertako enpresa txiki eta ertainen, enpleguaren eta inguru-

menaren onerako izango da; jatorri eta kalitate ziurtagirien alorra uztartzeak balio erantsi handiagoa eman dezake ere.

6. Pertsonen eta gizarte eragileen partaidetza, adostasuna eta inplikazioa izatea politikak eta neurriak erabakitzerako orduan; demokrazia ez dadin izan lau urtean behin kolore bat hautatzea. Gainera, herrialde mailako politika koherente eta integrala diseinatzea, gobernu eta instituzio publiko guztiek norabide berean lan egin dezaten lan eta bizi baldintzak hobetzea helburu kokatuz. Euskal instituzioek aurre egin behar diote, era praktikoa, Europar Batasuneko industria ereduari, beraien ustetan politika industrial hoberena existitzen ez dena baita.
7. Ikerketa, garapena eta berrikuntza ekonomiaren bultzatzaile nagusi bilakatzea, balio erantsi gehiago sortu dezagun eta ekoizpen ereduaren eraldatzaile izan dadin. Horretarako, ezinbestekoa da Europako buruan kokatzea I+G+b arloan egindako inbertsioan.
8. Gaur egun daukagun ehun produktiboa eta enplegua defendatzea, ematen ari diren industriaren deslokalizazio eta itxiera erabakiei aurre eginez.

Langileok borrokan jarraituko dugu bizi baldintzak hobetu eta bermatzeko, baina gobernuek ere dagokien lana egin behar dute hori horrela izaten lagundu dezaten. Jaurlaritzak bere lana egin ezean, langileok askoz ere zailagoa izango dugu justizia eta ekitatea lortzea Euskal Herrian.